

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 24an hartutako erabakiaren laburpena: 2026an informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta -sustapena, ekintza solidarioen sustapena eta boluntariora xede duten jarduerak eta ekintzetarako dirulaguntza-deialdia

BDNS(Identif.): 895381.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/895381>).

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko apirilaren 24ko erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, Vitoria-Gasteizen 2026. urtean proiektu sozialak garatzeko dirulaguntzen deialdia ALHAOn 2026ko apirilaren 8an argitaratzean egindako akatsak zuzentzen dira, eta Vitoria-Gasteizen 2026. urtean proiektu sozialak garatzeko dirulaguntzen deialdia ALHAOn berriro argitaratzeko epe berri bat irekitzen, argitaratu zen hartan akats material bat aurkitu delako.

Honako akats hauek aurkitu dira:

Laugarren oinarrian, nahiz euskaraz, nahiz gaztelaniaz, "Lau kontzeptutarako emango dira dirulaguntzak. Se establecen cuatro conceptos subvencionables" dioten lekuan, beste hau esan behar du: "Hiru kontzeptutarako emango dira dirulaguntzak. Se establecen tres conceptos subvencionables".

Gaztelaniazko testuaren argitalpenaren 6. oinarrian, "Las ayudas que se conceden al amparo de la presente convocatoria se imputarán al crédito presupuestario de la partida 11.11.2301.480.45 del presupuesto del ejercicio 2025 del Departamento de Políticas Sociales con una dotación máxima de 125.000,00 euros " debe figurar " Las ayudas que se conceden al amparo de la presente convocatoria se imputarán al crédito presupuestario de la partida 11.11.2301.480.45 del presupuesto del ejercicio 2026 del Departamento de Políticas Sociales con una dotación máxima de 125.000,00 euros ".

9. oinarrian, gaztelaniazko idazkeraren argitalpenean, "No serán objeto de subvención: "Los proyectos de entidades que sean beneficiarias durante el año 2025 de subvenciones nominativas del importe mayor de 10.000,00 euros del Departamento de Políticas Sociales", debe figurar "Los proyectos de entidades que sean beneficiarias durante el año 2026 de subvenciones nominativas del importe mayor de 10.000,00 euros del Departamento de Políticas Sociales".

Hirugarren pertsonak beren eskubideak transkripzio-akatsaren eraginpean egon daitezkeenez, eta eskubide horiek gardenago eta babestuago egon daitezten, proposamenak aurkezteko beste proposamen bat irekitzen da, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehen. Entitate onuradunak

“Deialdian elkarte, fundazio eta entitate irabazi-asmorik gabekoek parte hartu ahalko dute, baldin eta honelako ekintzak egitea esanbidez jasota badaukate beren estatutueta xedeetan: gizarte-prebentzioari eta -sustapenari loturiko ekintzak, edo desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen elkartasuna adierazteko eta laguntzeko ekimen zuzenak egitea xede dutenak.

Dirulaguntza eskatzen duten pertsonen edo entitateen Vitoria-Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, eskatzaileak udalaz gaindiko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren ekimenak Vitoria-Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta, betiere 4. oinarrian zehaztutako kontzeptuetara egokituta. Horretaz gain, pertsona juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorrean “edo Euskal Autonomia Erkidegoan dagokien Erregistro Publikoan” izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki.

Bigarrena. Xedea

Informazioa, sentsibilizazioa, gizarte-prebentzioa eta -sustapena, ekintza solidarioen eta boluntariotzaren sustapena xede dutelarik 2026an gasteiztarrei zuzentzen zaizkien jarduera eta ekintzak, Gizarte Politiken Sailaren eskumenekoak badira eta beste udal sail baten berariazko dirulaguntza-deialdi baten xede ez badira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren bidez onetsita, ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Gizarte Politiken Sailaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 11.11.2301.480.45 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 125.000,00 euro baliatu ahalko dira horretarako.

Bosgarrena. Aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, oinarri hauei dagokien deialdiari buruzko laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 8a

Gizarte Politiken Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
IÑIGO JIMÉNEZ PEREDA